

ARBIASKA
ANGIOZARKO HERRI ESKOLAKO
GURASO ELKARTEA



Angiozar Ezagutzen

Angiozarko Guraso Elkarte

2012-2013 ikasturtea

Sarrera:

Natura ingurune batean kokatzen da gure auzoa, baserriz, mendiz eta ortuz inguratua, eta erreka txiki garbi baten alboan. Ingurune horretan, umeei naturarekiko gertutasun horren jabe izatea eta naturan inguruko zaletasunak bultzatzea nahi dugu.

Beste aldetik, gurasoak konturatu gara auzotar nagusiek dituzten hainbat jakintzaren transmisioa apaldu egin dela. Hori gertatzeko arrazoi nagusiak, gure ustez, alde batetik, azken urte hauetan familia berriak etorri direla auzora. Beste aldetik, egungo bizimoduak herritik kanpo eta herrikoak ez diren ekintzetan denbora gehiago pasatzera eraman gaituela.

Horiek horrela, gure auzoa hobeto ezagutu nahi dugu.

Proiektuaren izena:

Angiozar auzoa ezagutzen.



Helburuak:

- Haurrak eta gurasoak auzoa hobeto ezagutu.
- Auzoari buruzko ezagutza transmititu, belaunaldi berriei eta auzotar berriei.
- Haur eta gurasoak hainbat jardueratan elkarrekin aritu.
- Irakasle, guraso, ikasle eta herriko familien arteko interakzioa bultzatu.
- Auzoko hizkuntza eta kultura ondasunak jaso eta zabaldu: auzoko hizkera, bertako toponimia, ohiturak...

Partaideak:

- Eskolako haurrak, gurasoak eta auzoko herritarrak.

Deskribapena:

- **Auzoaren Historia:** Auzoaren historia ezagutarazteko helburuarekin hitzaldi bat antolatuko da. Auzoko 3-4 bizilagun nagusi elkartuko ditugu eta auzo alkatea arituko da moderatzaile.
- **Auzoko toponimia eta leku-izenak:** Auzoan erabiltzen diren edota erabili izan diren hitz eta izen bereziak ezagutzeko eta hauen transmisioa lantzeko jaso egingo ditugu. Ahozko testigantzak grabatu egingo ditugu.
- **Loidiko errota ezagutu:** Angiozarko Loidi auzoko errotara bisita eta bertan errotaren funtzionamenduaren azalpena. Azalpenak errota martxan ezagutu duen auzotar batek emango ditu.
- **Angiozar erreka:** Ibilaldi bat egingo da erreka bazterretik jaiotza arte.
- **Auzoko ermitak ezagutzen:** Angiozar auzoa bost auzok osatzen dute, auzo horietako bakoitzean ermita bat dago eta ermita horiek guztiak berezitasunen bat daukate. Gaia lantzeko irteera bat egingo dugu, egun berean auzo guztietara, eta auzo bakoitzean bertako herritar batek azalpenak emango ditu.
- **Handiketxe baserria:** Baserri horrek egitura berezia dauka sagardoa egiteko erabilera dela eta. Baserria berritu bada ere, egituraren berezitasuna mantendu da. Bisita horretan baserria ezagutzeaz gain, sagardoa nola egiten zen ezagutzeko aprobetxatuko da. Ekintza hori Handiketxe baserriko bizilagunak gidatuko du.

Proiektuaren Faseak:

Apirilean hasita, hiru astean behin arlo bati dagozkion ekintzak gauzatuko dira jarraian:

Hasiera eguna: Haurrak, irakasleak, gurasoak zein herritarrak elkartu eta proiektua azaldu. Auzo guztiari egingo zaio deialdi zabala.

1. **FASEA:** Lan banaketa eta lan egutegia zehaztuko da. Gai bakoitzeko arduradun-koordinatzaile bat izendatuko da.
2. **FASEA:** Bisitak, ekintzak, hitzaldiak... burutu.
3. **FASEA:** Grabatutako testigantzak bildu eta bakoitzaren fitxa bete (lekukoaren datuak, gaia, grabazioaren data eta tokia...)
4. **FASEA:** Interesa izan dezaketen erakundeen eskura materiala jarri: Bergarako Udaleko artxibo historikoa eta euskara zerbitzua, ahotsak.com...

Ondorioak:

Jasotako material guztia behar bezala katalogatuko da eta interesa izan dezaketen aipatu erakundeei helaraziko zaie: grabazioak eta argazkiak, dagokien informazioarekin.

Behin aipatutako egitekoak burutu ondoren, balorazioa egiteko batuko gara.

Aurrekontua:

-Inprenta gastuak (kartelak, oharrak ...)	50
-Grabaketa tresnak (ahots grabagailua, bideoa, grabatzeko diskak ...)	100
-Irteerak egiten ditugunean eramango ditugun zizka-mizkak.	100
-Proiektuan parte hartzera gonbidatuko ditugun auzotarrei egin beharreko operari edo esker oneko detailea.	120
GUZTIRA	370

Diru iturriak:

Ekintza guztiak doan izango dira, eta Guraso Elkarateak bilatuko du sortutako gastuei aurre egiteko baliabideak.